

## 5. Tailerra: *Hiru substratuen teorian oinarrituta, hitzen etimologiak aurkitzen*



Bittor Kapanagak Otxandion jaiotakoa da orain dela 83 urte. *Euskera erro eta gara* liburua orain dela 31 argitaratu zuen. Bittorrek hizkuntzaz gain, euskal mitologia eta beste zenbait gai landu ditu Euzko Gogoan, Zeruko Argian eta Egunkarian argitaratutako artikuluetan.

Etimologian egin duen ekarpen nagusia lehenengo liburu horretan dago. 210 orrialde dituen liburu horretan, teoria guztiz interesgarria plazaratu zuen: euskarak hiru egitura desberdin ditu bere barnean.

Bittor, lanbidez, metalurgian ibili da, burdinarekin lan eginez, Eibarren lehenengo eta Otxandioko lantegi batean ondoren. Baina, bizitza osoan euskararekiko kezka izan du eta ordu askotako gogoeta eta mendebaldeko euskara barru barrutik ondo ezagutzea izan dira bere teoriaren ongarriak.

Laugarren Biltzar honetan, bere teoria hobeto ulertzeko, lehenengo liburuaren *Etimologia Tailerra* eskainiko da. Tailer honen helburua Bittor Kapanagak lehenengo eta Josu Naberanek ostean sakondu duten hiru iturburuaren teoria ulertzea eta horietan oinarrituta hitz batzuen etimologia ateratzea da.

## 1. Sarrera

### a) Euskeraren hiru iturburuak

Kapanagaren arabera, euskararen hiru iturburu edo substratu daude eta, hiruretan, oinarritzko hiru erro ditugu, Izatasuna, Egintza eta Getasuna adierazteko. Salbuespenez, substratu batek Izatasuna adierazteko baten ordean, 2 erro ditu. Horrela, 10 erroetan oinarrituta, euskararen arkitektura eraiki izan zela pentsa litekeela dio Kapanagak. 10 erro horiek hastapeneko ahoskiak izatea dirudite. Gizakia lehenez fonema bereizi batzuk ahoskatzeko gai egin zeneko aztarnak izatea alegia. Berari kasu eginez, *euskera* erabiliko dugu hemen, *eusk-era* erroetatik datorrelako.

Iturburuak	Izatasuna	Egintza	Getasuna
Lehena	<b>IZ</b>	<b>IN</b>	<b>IL</b>
Bigarrena	<b>AR</b> <b>UR</b>	<b>UK</b>	<b>U</b>
Hirugarrena	<b>GO</b>	<b>GI</b>	<b>GE</b>

### b) Erroen aldaketak

Erro hauek sarekatuz edo erro hauetatik berri batzuk sortaraziz, hitzak sortzen joan dira. Bilakaeraren eraginez, erroak aldatu izan dira, Egintzari dagozkionak izan ezik. Hona hemen, zenbait adibide:

Erroa	Bilakaera adibideak
<b>IZ</b>	Iz, itz, is, its, ix, itx, xa, ya. Beste bilakaera: biz, giz
<b>IL</b>	il, ail, al
<b>AR</b>	ar, ara, arr, arra
<b>UR</b>	ur, ura, urr, urra
<b>U</b>	U, ul eta un
<b>GO</b>	go, ko, ga, ego, egu
<b>GE</b>	ge, ke, ga, ka

### c) Hitzak sortzeko oinarritzko arauak

Bederatzi erro hauekin, euskararen hitz gehienak sortu direla adierazten eta azaltzen du urratsez urrats Bitorrek, oinarritzko arau hauen arabera:

1. Izatasun zentzudun fonemak, esanahi orokor bat dute beren zentzu esparruan: **IZ = sua, argia, ura, izatasuna, askotasuna, aitzia, aizea, gorputza, gogoa, hitza, zuhaitza, denbora, bizia, gizona, piztia...**
2. Izatasun zentzudun fonemak alkartuz, zentzu bereko diren hitz berriak sortzen dira: **go-iz, iz-ar, ar-itz, ur-itz, ga-ur, itz-ar, go-ar.**
3. Izatasun eta getasun zentzuzkoak alkartuz, ondorengoak getasun zentzua izaten dute: **is-il, itz-al, its-u, itz-ul itz-un, iz-un, is-un, ge-iz, ga-itz, ya-u (xau), ur-un**, e.a.
4. Izatasun eta egintza zentzudun fonemak alkartuz, egintza esanahidunak sortzen direla: **iz-a-n, ya-n, ga-in, ur-i, ya-gi, ar-i, go-r-i.**
5. Egintza eta getasun zentzudunekin, getasun zentzudunak sortzen dira: **in-ul.**
6. Getasun eta egintza zentzudunekin, egintza zentzua dutenak batez ere: **ge+in = gen, ken; un-gi** (itzungi).
7. Getasun zentzudun fonema bi alkartzean, zentzu berekoak sortzen zaizkigu: **il-un, ga-u, ge-al** (gal) (gel).
8. Egintza zentzuzkoak alkartuz, zentzu berekoak: **uk-a-n, e-uk-i, gi-n.**

## 2. Ariketak

### a) Lehenengo iturburua: IZ izatasuna

Ondorengo hitzak zatitu egin behar dituzu, erroak ondo bereiztuz. Eskuineko zutabearen arlo bereko hitzen bat gehiago ezagutuz gero, gehitu dezakezu:

Arloak	Erroen arabera, deskonposatu ondorengo hitzak				Gehitu
iz sua	ixitu	istasun	itzali	izutu	
iz argia	izpi	itzal	itsu	izar	
iz ura	izotz	itz	itsaso	iturri	
iz gorputza	izatz	iperdi	izara	izerdi	
iz gorputza	sabel	txiz	zil (zilbor)	izter	
giz gorputza	gibel	giltzurri	gizen	gizon	
biz bizitza	bizi	bixots	bizar	biztu	
Ya gogoa	yan	yagi	yagon	yaurti	
Iz Aitza	aitz	aizkora	aitzur	azpil	
Iz hizkuntza	izkera	izkuntza	isil	itzartu	

### b) Lehenengo iturburua: IL getasuna (al...)

Erroen arabera, deskonposatu ondorengo hitzak				Gehitu
ilun	makal	argal	isil	
itzal	gal	ilargi		

### c) Bigarren iturburua: AR-UR izatasuna (al, as, az...)

Arloak	Erroen arabera, deskonposatu ondorengo hitzak				Gehitu
ar sua	ardagai	gar	arrapiztu	galda	
ar argia	argi	artz	arrats	artizar	arge
ar argia	agur	urten	urte		
Ur Ura	elur	Uriola	Urdin	Ubi	
Ar Gogoa	Arreta	ardura	alai	haserre	
Ar Gogoa...	alkar	Arbaso	Urkatu	Urtuxi	